

Jon Abril

ELHUYAR FUNDAZIOKO
ZUZENDARIA



EUSKARA, KULTURA ETA POLITIKA, ELKAR LOTUTA

“Beran sortu nintzen 1975ean, eta bertan bizi naiz. Euskararekin eta kulturarekin jostetan aritu naiz gazetandik, herrian eta herritik kanpo. Bertso txapelketetan epaile, makina bat hedabidetan kazetari eta kolaboratzaile. Kazetaritza utzi eta kultur teknikari aritu nintzen Beran, eta politikan murgildu nintzen gero, herrigintzan bertze molde batez aritzeko. Alkateorde eta zinegotzi eman nituen hamabi urte, eta horietatik bortzetan Aralar alderdiko koordinatzaileordea izan nintzen. Azken zazpi urteotan Elhuyarren aritu naiz, euskara, partaidetza eta berrikuntza sozialeko teknikari gisa. Irailaren 1az geroztik bertako zuzendaria naiz”.

“Zientziak ez ditu erantzun guztiak, baina laguntzen ahal du gizarte hobe baten bidean”

Zientziaren euskarazko dibulgazioa egiteko sortu zen Elhuyar 1972. urtean, eta geroztik, handitzen eta jardun esparruak eransten joan da. Egun, jatorrizko alorraz gain, hizkuntza teknologien esparruan, aholkularitza zerbitzuetan –berdintasunean, euskararen eta partaidetzan– eta komunikazioan dihardu, 85 laguneko egitura bati esker. Pasa den hilabetetik Jon Abril da zuzendari nagusia. Eta erronka berriei dator.

 **ANDER PÉREZ**  **DANI BLANCO**

Jon Abrilrentzat, zer da Elhuyar?

Azkeneko zazpi urteetan lantokia izan da, eta aukera eman dit euskalgintzan hainbeste ezagutzen ez nuen alderdi bat ezagutzeko, eta euskaratik esparru berrietan murgiltzeko. Ziur aski, eduki ditudanetatik, lan esperientziarik interesgarri eta aberatsenetako bat izan da. Agian interesgarriena bere harreman sare eta lankidetzakopuru izugarria da: euskalgintzako eragileekin harreman estua dago, baina baita unibertsitate munduarekin, ikerketa munduarekin, administrazio publikoarekin eta enpresa pribatuekin. Euskaratik halako erakunde eta eragileekin eragin ahal izatea hagitz interesgarria iruditzen zait.

Zientziarena da Elhuyarren berrezko esparruetako bat. Euskarak badu tokirik mundu horretan?

Bai, ez bairik gabe, eta gainera, azkeneko urteetan ekoizpena ere izugarri handitu da: unibertsitatean euskaldunek zientzia ikasi duten neurrian ere gero eta ikerketa gehiago egiten da euskaraz, eta gero eta ezagutza gehiago sortzen da, eta horrek ere

eskatzen du sortzen den guzti hori zabaltzea.

Alegia, egin daitekela euskaraz fisika kuantikoari buruz.

Dudarik gabe. Beharbada, gizartean, orokorrean, oraindik aurreiritzi horiek egon daitezke. Baina nik erran dezaket komunitate zientifikoan ezetz, aspaldi gauditua dagoela, demostratu delako posible dela, eta egiten dela. Bere garaian [Pedro Miguel] Etxeniketik esan zuen bezala, nahikoa dira bi gauza: fisika kuantikoaz jakitea, eta euskaraz jakitea.

Eta alderantziz, zer leku du zientziak euskal munduan?

Kostatzen da, baina ez da bakarrik euskararen arazo bat, baizik eta egungo gizartearena. Alde batetik gizarte izugarri teknologiko eta teknifikatua dugu, baina ezagutzaren ikuspegitik ospea kendutako eremuak dira, ahaztutako eremuak; ez bakarrik zientziarena, baita bestelako jakintzaren arlo anitz ere. Eta aldiz, ikusten dugu edozein erabakitan zientziaren dibulgazioak anitz lagundu dezakeela, hasi



"GIZARTE IZUGARRI TEKNOLOGIKOA DUGU, BAINA EZAGUTZAREN IKUSPEGITIK AIPUA KENDUTAKO ETA AHAZTUTAKO EREMUAK DIRA; EZ BAKARRIK ZIENTZIARENA, BAITA BESTELAKO JAKINTZAREN ARLO ANITZ ERE".

egunero teknologiak jartzen dizkigun erronketatik eta klima aldaketaren aurrean hartu behar diren neurrietaraino. Beharbada zientziak ez ditu erantzun guztiak, baina laguntzen ahal du gizarte hobea baten bidean. Gizarte jantziago bat literaturan, humanitatetan, giza zientzietan eta zientzietan, anitzez ere gizarte hobea izango da.

Nola iritsi zen Elhuyar zientziaren dibulgaziotik hizkuntzalaritzan ere espezializatzerara?

Elhuyarreko sortzaileek argi zuten zientzia euskaraz sustatu nahi zutela, eta horrek berehala ekarri zuen euskara tekniko baten beharra. 70eko hamarkadaz ari gara: euskara batua sortu berria zen eta oraindik terminologia aldetik... Gainera,aldi berean izan behar zuen hizkuntza tekniko eta dibulgaziorako hizkuntza. Hortik garatu dira gerora Elhuyarren baitan hizkuntzaren alor guztiak.

Hizkuntzaren alorrean, zertan ari zarete?

Bertzeak bertze, teknologia berrien alorrean, big dataekin edo adimen artifizialarekin lotutako zenbait produktu

garatzen ari gara, hutsune bat ikusten dugulako: gero eta ohikoagoa da gailu teknologikoei aginduak ahotsez ematea, baina sistema horiek ez dute euskara ezagutzen. Lanean ari gara hori errealtatea izan dadin, eta gure gailuetan euskara ere egon dadin, bertzela bozgorailu adimentsu horiek etxera sartzen zaizkigunean gaztelania ere sartuko da, eta nagusituko da.

Hizkuntza ohituretan ere eragin beharko da, oraindik erdararekin lotzen baitugu teknologia.

Bai, hori guztiz nabaria da ordenagailuetako sistema eragile eta programetan. Horiek euskaraz jartzeko bitartekoak badaude. Uste dut .eus fundazioak orain gutxi atera zuela datua: gailuen %70 inguruk eduki dezake bere softwarea euskaraz, baina euskaldunon %4ak bakarrik dugu euskaraz jarria. Ziurrenik ohitu garelako erdal hizkuntzetara, baina baita utzikeria anitz eta ezjakintasuna dagoelako. Tarteka entzun behar izaten dut konplikatu dela gailuetako euskara ulertzea, baina gaztelaniaz lehen aldiz menu horiek ikustean ez genituen ulertu, eta gaur egun arruntak zaizkigu.

Norberak bere buruari ere paratu behar dio erronka.

Zeintzuk dira zureak, hartu berri duzun zuzendaritzari dagokionez?

Etxe barrura begira, bi erronka aipatuko nituzke: bat, larrialdi klimatikoarekin lotuta, erakunde berdeagoa egitea; eta bi, erakunde berdinzaleago bat izatea. Erakunde guztiz feminizatua gara, langileen %75 emakumeak dira, berdintasun plana dugu, jazarpen sexualaren kontrako protokoloak ditugu, lan handia egin da konziliazioan... baina gure erakundeak gizartean gertatzen denaren isla ere bada, eta uste dut horretan sakontzen segitu behar dugula, bereziki zaintzaren ikuspegitik.

Eta kanpora begira?

Elhuyarren DNAn beti egon da lankidetzaren ideia, eta azkeneko urteetan gehiago zaindu ditugu orain arte esploratu gabeko eremuetako lankidetzari berriak, eta horrek ekarri du batzuetan hurbilenak eta sortzetik gure ibilbide lagunak izan direnengan indar gutxiago jartzea. Gustatuko litzaidake bide horretan bereziki euskalgintzako erakundeekin harreman estuagoa edukitzea. ●